

WEBGUNEAREN GIDA DIDAKTIKOA

Web orri honetan Industria Iraultzaren garaia sakon ezagutzeko hainbat material eta proposamen aurkituko dituzu. Ibilbide honetan laguntzeko orriaren atalak aurkeztuko dizkizugu:

- **TESTUA.** Atal honetan edukia egituratzeko diseinatu ditugun liburuak aurkituko dituzu. Bakoitzaren gainean klik eginez testua bera, irudiak, grafikoak eta sakontzeko edukiak duten koadrok aurkituko dituzu. Erantsitako koadro hauetan hainbat proposamen egiten dizkizugu zure ikuspuntua zabaltzeko, baita ikasgelan garatzeko eztabaidak ere. Amaieran, terminoen glosarioak aurkituko dituzu, unitatearen oinarritzko hiztegia errepasatzeko.
- **INFOGRAFIA.** Hemen unitateko eduki nagusiak modu grafikoan eta oso laburtuan ikusi ahal izango dituzu. Handitu infografia argi ikusteko behar duzuna.
- **PRAKTIKATU.** Atal honetan Industria Iraultzari buruz dituzun ezagutzak probatu ahal izango dituzu. Hiru aukera dituzu horretarako:
 - **TESTAK.** Aukera honetan klik eginez, zure ezagutzak eta trebetasunak praktikatzeko testak aurkituko dituzu: hiztegia errepasatu eta egiaztatu zure ulermen-maila testuak, grafikoak, eta irudiak aztertzeko. Irakasleentzako oharra: test horien fitxategiak hainbat formatutan erantsi ditugu, deskargatu edo ikasgelan erabiltzen duzun plataformara pasa ditzazun. Testaren izenburuan dauden zailtasun-mailak zenbaki batekin identifikatu ditugu: 1 maila errazena da, 2 tarteko maila, eta 3 konplexuena.
 - **KAHOOTAK.** Hemen klikatuz gero, zure kideekin jolasteko diseinatu ditugun kahooten estekak aurkituko dituzu. Lehiatu azkarrena izateko eta erantzun zuzena emateko quiz joko honetan.
 - **SCAPE-ROOMAK.** Hemen bost scape-room digital diseinatu ditugu bakoitzean eskatzen dizkizuten erronkak konpon ditzazun. Scape-rooma gainditzeko, pantailan aurrera egin behar duzu. Baina hau ez da hain erraza... kodetuta daude eta!

Pantaila bakoitzak kode itxurako igarkizun bat planteatzen dizu, hurrengo erronkara pasatzeko aukera emango dizuna. Banaka edo taldean joka dezakezu, taldeen artean lehiatu zaitezkezte azkarrenak izateagatik ere! Lagundu, pentsatu eta ikasi duzuen erabili kode zuzenak diseinatzeko eta

probak gainditzeko. Pantaila gainditzeko kode zuzen horiek eskatuko dizkizuite eta proba bakoitzean azalduko zaizuen orden zehatz batean egon behar dira jarraitzeko.

Laguntza: pantaila bakoitzeko kodeen zerrenda bat sartu dugu, aurrera egitea lortzen ez baduzu lagungarri izan dadin. Baina... zugar konfiantza dugu! Ahalik eta gutxien erabili, pazientzia eta adimen pixka batekin zailtasunak gainditu ahal izango dituzu.

- **PROEIKTUAK.** Hemen ikasgelan garatzeko hiru proiektu-proposamen aurkituko dituzu. Proiektu bakoitzaren gainean klik eginez, proposamenaren deskribapena, garapena eta ebaluazio-errubrikak aurkituko dituzu, zure produktuari zein lankideei aplikatu diezazkiezun.
- **IBILALDIAK.** Atal honek Industria Iraultzak zure ingurune hurbilenean izan duen eragina ezagutzera eramango zaitu. Hemen, Euskadiko mapa bat aurkituko duzu, orratz askorekin. Bakoitzaren gainean klik eginda, fitxa bat irekiko duzu leku horretan proposatzen dugun txangoarekin, Industria Iraultzarekin zerikusia duena. Horrekin batera, estira bat agertuko zaizu ere bai, inguruan intereseko beste elementuren bat ezagutzeko. Konbinatu fitxa hauek, eta diseinatu zure ibilbideak. Are gehiago, fitxa horiek kontsultatzeak lagunduko dizu industria-ondarearen aberastasuna eta aldi horrek Euskadin izan duen eragina ulertzen, nahiz eta txangoa berez ez egin.
- **EBALUAZIOA.** Atal honetan zure lanen edo ekarpenen kalitatea hobetzeko aholkuak eta laguntza aurkituko dituzu. Gainera, zure lanaren funtsezko puntuetan laguntzeko aplikatu ditzakezun ebaluazio-errubrika batzuk sartu ditugu.
- **IKUS-ENTZUNEZKOAK.** Atal honetan, zure mundua hobeto ezagutzeko eta sakontzeko ezinbestekotzat diren gaietarako buruzko hainbat bideo aurkituko dituzu. Bideoekin batera gida didaktikoak daude, proposatzen dizugun gaian sakontzen lagunduko dizutenak.
- **BESTELAKOAK.** Hemen fitxa osagarriak aurkezten dizkizugu, gaia hainbat ikuspegitatik aztertzeko. Liburu eta filmen gomendioetan, proposamen bakoitza aurkezten duten fitxetara sartu ahal izango zara, bakoitzean sakontzen lagunduko dizun gida didaktikoak labur batekin. Biografiaren atalean, une historiko honetako pertsonaia garrantzitsuak ezagutuko dituzu.

Orain zuri dagokizu industria-iraganean murgiltzea. Animo!